

Euskal AEk ia 4.000 biztanle gehiago 2017an

Donostian eta Gasteizen biztanle gehiago; Bilbon gutxiago

Eustaten datuen arabera, Euskal AEn 2017an 2.175.819 biztanle; kopurua goraka, azken urteetan egonkor egon ondoren. 2016an baino 3.934 pertsona gehiago; 2012an baino gutxiago, orduan izan zen maximo historikoa.

Hiru herrialdeetan biztanle gehiago 2016an eta 2017an. Bizkaian +575; 2012.aren aldean -14.708. Gipuzkoan +2.102, Euskal AEko hazkundearen erdia. 2012tik, +7.207. Araban +1.257 ; 2012an baino gehiago, 2013 eta 2014ko jaitsieren ondoren. Bizkaiko galerengatik ez du berreskuratzen Euskal AEk 2012ko kopurua.

Azken bi urteetan Gasteizek 803 biztanle irabazi ditu; Donostiak 379; Bilbok 84 galdu. Bilbon eta Donostian 2009an izan ziren maximo historikoak; handik aurrera beheraka Bilbo, -12.659 azken bederatzi urteetan. Donostian gora-beherak izan dira; egun, 2009an baino 2.016 biztanle gutxiago. 2013an eta 2014an izan ezik Gasteizko biztanleak beti goraka; maximoa 2017an.

2016 eta 2017an gehien hazitako udalerria, Amorebieta-Etxano, +220 (%1,2); Hernanin 239 gutxiago, jaitsierarik handiena. Samaniegok eta lekorak %5 pasa galdu dute; bien artean 45 biztanle gutxiago.

Azken bost urteetan Getxo, Barakaldo, Portugalete, Santurtzi, Basauri eta Sestaok 1.000 biztanle pasa galdu; guztira 8.246. Ondoren, Arrigorriaga, -320. Denak Bilbo Handiko udalerriak; eskualde honetan daude biztanle-dentsitate handiendun udalerriak, km. karratuko 5.000 pasa; Portugaleten, 2017an, 14.521.

Taula. Euskal AEko biztanleak, lurralde eremuen arabera, adin talde handiei jarraiki

	Guztira	0 - 19	20 -64	>= 65
Guztira	2.175.819	18,3	60,0	21,7
Lurralde historikoak				
Araba/Álava	323.592	19,3	60,6	20,1
Bizkaia	1.139.426	17,5	60,3	22,2
Gipuzkoa	712.801	19,3	59,1	21,6
Hiriburuak				
Bilbao	342.397	16,2	60,1	23,7
Donostia / San Sebastián	180.558	17,2	59,6	23,2
Vitoria-Gasteiz	242.254	19,2	60,6	20,2
Eskualdeak				
Arabako Ibarak / Valles Alaveses	6.032	17,6	61,9	20,6
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	259.639	19,4	60,7	19,8
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	3.009	14,9	58,4	26,8
Arratia Nerbioi / Arratia-Nervión	23.735	19,5	60,6	19,9
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	76.828	19,2	59,8	21,1
Bilbo Handia / Gran Bilbao	857.016	16,9	60,2	22,8
Deba Beherea / Bajo Deba	55.498	19,0	58,1	22,9
Debagoiena / Alto Deba	63.075	19,0	58,3	22,8
Donostialdea / Donostia-San Sebastián	325.111	18,2	59,5	22,2
Durangaldea / Duranguesado	98.715	19,4	60,6	20,0
Enkartzioak / Encartaciones	31.909	17,7	61,0	21,3
Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	11.509	20,3	59,4	20,3
Gernika-Bermeo	45.690	18,3	58,9	22,8
Goierni	67.919	20,7	58,2	21,2
Gorbeia Inguruak / Estribac. del Gorbea	8.726	21,5	61,3	17,2
Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa	34.677	18,0	59,9	22,1
Markina-Ondarroa	26.160	17,6	59,4	23,0
Plentzia-Mungia	56.201	21,3	62,3	16,4
Tolosaldea / Tolosa	48.759	21,5	58,5	20,0
Urola-Kostaldea / Urola Costa	75.611	21,7	59,5	18,9

Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika. 2017/1/1

Euskal AEko 24 udalerritan 65 urte edo gehiagokoak, laurden pasa

2017an Espainian 65 urte edo gehiagoko pertsonak %18,8 dira. Euskal AEn %21,7. Gaztela eta Leon, Asturias eta Galizia, %24tik gora, zahartuenak. Europan Italia bakarrik (hiru hamarren) dago euskal proportzioaren gainetik. Orain hamar urte Euskal AE ehuneko hiru puntu pasa azpitik zegoen.

Batez bestekoaren gaineratik 83 udalerri; 168 berdin edo azpitik. Lehenengoen artean, Bilbo, Donostia eta Barakaldo. Azken hamar urteetan 76 udalerriren 65 urte baino gehiagoko proportzioa txikitu egin da, baina udalerrietan biztanle guztien %3,4 bakarrik bizi da.

Badira aldeak 65 urte edo gehiagoko portzentajeak: %10,1 Iruran, %40,3 Haranan. Iruraz gain Alegria-Dulantzi eta Larraul daude %11ren azpitik; denon artean 5.079 pertsona. %30en gaineratik, Harana, Lagran, Elantxobe; guztira 788 biztanle.

Arabako Mendialdean %26,8 (udalerri guztietan adindun asko); ondoren Markina-Ondarroa, %23. Baxuena Plentzia-Mungia, %16,4.

85 urte edo gehiagokoak %2,1 ziren 2007an; %3,7 2017an. 1,6 puntu gehiago 10 urteetan. Hazkunderik handiena Kantauri Arabarrean; minimoa Gorbeiko Inguruetan; alde handiak. 100 urte edo gehiagokoak 341 ziren 2007an; 2017an, 624.

Gure erkidegoan 65 urte edo gehiagoko 1,5 pertsona daude 16 urtetik beheragoko bakoitzeko; Espainian 1,2; Asturiasen 2,1.

Ratio horren gaineratik 67 udalerri; muturrak, Harana (6), Lagran eta Añana-Gesaltza, 4 pasa. Irura, Alegria-Dulantzi, Larraul eta Arakaldon, 65 urte edo gehiagoko bakoitzeko 15 urte bitarteko 2 gazte baino gehiago.

Arabako udalerrietan ditugu muturreko kasuak adinaren arabera biztanle-banaketan, tamaina txikiagatik eta migrazio bezalako fenomenoek banaketan duten eraginagatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62